



OROITIDAZKIA



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos



Non gauden

Tomas Zumarraga Dohatsuaren
kalea, 71-3 - 01008 Vitoria-Gasteiz

Tel. 945 016 230 - Faxa. 945 016 231

Posta elektronikoko helbideak

Orokorra:
avpd@avpd.es

Euskadiko Datuak Babesteko
Erregistroa:
registro.ficheros@avpd.es

Eskubideen babesa:
tutela.derechos@avpd.es


Idazkaritza Nagusia:
secretaria.general@avpd.es

Web helbidea:
www.avpd.es



Nola heldu

- DBEBren egoitza Apaizgaitegi zaharraren mendebaldeko hegalean dago, Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalearen amaieran.
- Eraikin berean daude Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren egoitza, EJIEn zenbait zerbitzurena eta IZENPERena (Euskal Administrazioen Egiatzapen Erakundea).
- Gasteizko hegoadetik sartzeko (Burgostik), Mediterraneoaren hiribidetik hirigunera desbideratzeko bidea hartu behar da.
- Iparraldeko eta ekialdeko sarreretatik (Bilbotik, Donostiatik edo Iruñetik) heltzeko, Euskal Herria bulebarra hartu behar da, Zabalgana hiribidetik segitu, eta hurrengo bi biribilguneetan ezkerretara biratu ondoren, alboko bidetik, atzerantz eginez, Gasteizko hirigunerantz jo behar da.



Zer garen
Zer egiten
dugu

Administrazio aske bat gara eta eginkizun hauek ditugu

Kontrolatzen dugu

euskal administrazio publikoek pertsonen gaineko informazioa kudeatzen dutenean, datu babesaren arloko araudia betetzen dutela.

Horretarako:


- Ikuskatu egiten dugu
- Espedienteak izapidetzen ditugu
- Arau-hausteak deklaritzen ditugu

**Aholkularitza
lana egiten dugu,** datuen babesaren inguruan pertsonak eta administrazioek egiten dizkiguten kontsultei eta txosten eskei erantzunez. Aholkularitza eginkizuna **irizpenen eta txostenen** bitartez gauzatzen dugu.

Euskal administrazio publikoek informazioaren kudeaketaren arloan **jardunbide egokiak eskuratzeko egitasmoetan parte hartzen dugu eta sustatu egiten ditugu.**

**Herritarrei
informazioa
ematen diegu** bizitza pribaturako eskubideari buruz eta datu pertsonalen babesari buruz.

**Datuak Babesteko
Erregistro batean
inskribatzen ditugu** Euskadiko administrazio publikoek egindako datu pertsonalen fitxategi eta tratamenduak (ez dira datu pertsonalak inskribatzen eta jakiten, datu motak eta datuen tratamenduak baizik).



2007ko Jardueren Oroitidazkia

Eskuartearen duzun
Eskuliburu hau
Bulegoaren
2007ko Jardueren
Oroitidazkiaren
laburpena da

Oroitidazki
osoaren xedea da
—Oroitidazkia CDan
dago— erakunde
publikoei eta
herritarrei azaltzea
zer garen eta zer
egiten dugun

Lau ataletan
egituratuta dago:

DBEBren jarduerak

DBEB zifratan

**2008ko oinarrizko
araudia**

**Txosten eta irizpen
adierazgarrienak**

DBEBren jarduerak

1. Aurkezpena
2. Kontseilu Aholku-emailea
3. Aholkularitza eginkizuna
4. Kontrol eginkizuna
5. Ikuskaritza sektoriala hezkuntza arloan
6. Euskadiko datuak babesteko erregistroa
7. Euskadin datu pertsonalen babesaren gainean dagoen pertzepzio sozialari buruzko txostenak eta azterketak
8. Pribatutasunaren kontzeptua eta DBEBren jarduerak zabaltzea herritarren artean eta beste administrazio publikoen artean
9. Datu pertsonalen babesa euskal hezkuntza sisteman
10. Datu pertsonalen babesaren inguruko sentsibilizazioko eta prestakuntzako materialak sortzea
11. Euskal administrazio publikoetan datu pertsonalen babesaren arloan aldaketak bultzatzeko egitasmoak sortzea
12. Beste administrazio, agentzia eta erakunde batzuekiko harremanak eta lankidetzak
13. Barne kudeaketa

DBEBren 2007ko Jardueren Oroitidazkiaren edizioa eta banaketa egiteko sistema:

- Oroitidazkiaren edukiaren aurkezpen laburtu hau
- Eskuliburuari atxikitako CDa Oroitidazkiaren eduki osoarekin, .doc eta .pdf formatuetan
- DBEBren (www.avpd.es) web orrian Oroitidazkiaren eduki osoa argitaratzea, nahi dutenek —administrazioen ordezkariak nahiz interesa duten herritarrek— eskura izan dezaten Oroitidazkiaren eduki osoa.



Aurkezpena

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (DBEB) 2004. urtean sortu zen erakunde publiko bat da. Lau urte bete berri ditu eta une ezin hobearekin iruditzen zaigu zuekin denekin partekatzeke lau urte hauetako bi gertakariak aipagarrien gainean egin ditugun haurnasketak. Gertakari horiek izan dira, batetik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa bera nola eraiki den, eta, bestetik, gizartean nola azaleratu den bizitza pribaturako eta autodeterminazio informatiborako eskubidearen kontzientzia.

Izan ere, esan behar da erakundearen lehendabiziko urte hauetan lan eskerga egin behar izan dugula egiturak sortzen, giza taldeak eratzen, ingurune sozialarekin eta instituzionalarekin harremanak taxutzen, eta politikak, prozedurak eta jardunbideak egokitzen; azken finean, ahalegina egin behar baita elkarrekin lan egiten ikasteko, gure kasuan administrazio publikoekin eta herritarrekin batera eta haietazko lan eginez, bereziki, herritarrak gogoan, horiek baitira gure azken helburua. Lehendabiziko urratsak eman ditugu eta prest gaude administrazio publikoek, pertsonen gaineko informazioaren kudeaketari buruz, adierazten dizkiguten premiei erantzuteko.

Ziurtzat ematen da gizartean bizitza pribatua babesteko eskubideari buruzko eta pertsonen eta erakundeek datu pertsonalekin egiten dituzten erabilerak

kontrolatu beharri buruzko kontzientzia sortzen ari dela. Baina, gure jardueren eraginkortasuna neurtu nahi badugu, herritarrentzat baliagarri izan daitezen, kontzientzia horri buruzko benetako ezagupen zehatza behar dugu nahitaez, bai eta kontzientziaren garapenari buruzko informazio zehatza ere. Helburu horrekin, herritarrek pribatutasunerako eskubideari buruz eta haien datu pertsonalen babesari buruz duten pertzepzio sozialaren gaineko azterketa kualitatibo bat egin dugu. Azterketaren ondorio bat da eskubidearen gainean ezjakintasun handia dagoela; baina, hala ere, gero eta kezka handiagoa sortzen dutela bidezjakintzak, adin gabekoek sarean duten babes faltak, telefono mugikorrekin egindako grabazioekin egiten diren erabilera lotsagabeek eta oldarkorrek, enpresetan korreo elektronikoaren erabilerari buruzko kontrolek eta telemarketinako neurriak gabeko kanpainak.

Egia da 2004tik 2007ra arteko aldia tarte laburra dela gure erakundeak gauzatutako jarduerak euskal administrazio publikoetan izan duten eraginaren ebaluazioa egiteko eta aldagetak bultzatzeko zein indar duten jakiteko. Hala ere, 2007ko Jaurdueraren Oroitidazkian ematen ditugun datuek argi erakusten dute nabarmen hasi direla datuen fitxategien aitorpenak eta erregistroak, aholkularitzako txosten eskeak, babes espedienteak, kontsultak

eta ikuskaritzak, bai eta tokiko euskal administrazioetan eta hezkuntza sisteman datu pertsonalen babesaren perpektiba txeratzeko jarduerak ere. Laburbilduz, esan dezakegu erantzun espezializatuak ematen ari garela bizitza pribaturako eskubidearen eta datu pertsonalen babesaren eta kudeaketaren inguruan herritarrek eta, bereziki, administrazio publikoek egiten dizkiguten eskakizunei, eta eskakizunak gero eta gehiago dira.

Lege-arauen arloan 2007a urte oparoa izan da, gure jarduerarekin zerikusia duten arau berriak⁽¹⁾ eman dizkigulako, eta nahiz eta benetako eragina oraindik ezin den jakin, antzeman daiteke aldaketa handia ekarriko dutela informazioaren kudeaketaren eta administrazioaren eta herritarren arteko harremanen arloan, eta horrek erakunde publiko guztien egokitu beharra ere ekarriko du. Edozelan ere, litekeena da pribatutasunerako eta datu pertsonalen babeserako eskubidea benetan ez gauzatzea informazioa atzitzeko eskubidea eta herritarrek zerbitzu publikoak modu elektrikoan atzitzeko eskubidea eratzen ez den bitartean.

Eremu teknologikoan, Internet eta Interneteko bilatzaileak dira dudarik gabe harreman sozial eta ekonomiko berriak sustatzen ari den *espazio elektronikoko edo hirugarren ingurune*ko protagonista nagusiak. Baina, Internet, telefono mugikorrak eta informazioa biltegitratzeko eta garraiatzeko tresna txikiak arriskutsuak izan daitezke informazioaren segurtasunerako eta gure

pribatutasunerako. Balizko arrisku horrekin batera —Europako administrazio jakin batean egiazko bihurtu da, benetan galdu baititu herritarren datu pertsonalak— benetako beste arrisku bat ere badago: pertsonen haien administrazio publikoengan duten konfiantza soziala galtzeko arriskua.

Zentzu horretan, Euskadin datu pertsonalen babesari buruz dagoen pertzepzio sozialaren azterkertak agerian utzi du herritarrak erabat fidatzen direla administrazioek haien datu pertsonalak erabiltzeko duten erarekin, eta ez direla fidatzen, ordea, enpresekin. Herritarrei hutsik ez egitea da erronkarik handiena, konfiantza galduz gero, ez baita batere erraza galdutakoa berriro berreskuratzea.

Egun DBEBn dugun eginkizunik garrantzitsuenak da lehentasunezko helburuak eta jarduerak eta horien emaitzak finkatzea, horiek behar bezala zehaztutakoan, norbanakoen eta erakundearen ikaskuntzarako baldintzak hobetzea ahalbideratzeko, eta, hartara, gizartearekin hartu-emanik hoberena lortu ahal izateko. Azken finean, *eskubidea* denon artean eraiki behar dugu: herritarrok, gizabanakoak garen aldetik, eskubidea aitortuz eta babestuz; datuak babesteko agentziek irizpideak ezarritik, ikertuz, kontrolatuz, informazioa hedatuz eta ezagutza bultzatuz; eta, azkenik, gizarteak, bizirik dagoen egitura soziala den aldetik, esperientzia eta arrisku berrietara aise egotituta horiei aurre eginez.

Iñaki Vicuña de Nicolás

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria

(1)

1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duena.

37/2007 Legea, azaroaren 16koa, arlo publikoko informazioa berrerabiltzeari buruzkoa.

25/2007 Legea, urriaren 18koa, komunikazio sare publikoei eta komunikazio elektronikoei buruzko datuak gordetzeari buruzkoa.

11/2007 Legea, ekainaren 22koa, hiritarrak elektronikaren bidez Zerbitzu Publikoetara heltzeari buruzkoa

232/2007 Dekretua, abenduaren 18koa, administrazio prozesuetan baliabide elektronikoak, informatikoak eta elektronikoak nola erabili auzatzen duena.



Kontseilu Aholku-emailea

2/2004 Legearen
14. artikulua xedatzen
duenez, Datuak Babesteko
Kontseilu Aholku-emailea
Datuak Babesteko Euskal
Bulegoaren zuzendariaren
kide anitzeko aholkularitza
organoa da.

Bertan daude
ordezkatuta Eusko
Legebiltzarra, Euskal Autonomia
Erkidegoko Administrazio Orokorra,
Euskadiko lurralde historikoak
eta euskal toki erakundeak. Horiez
gain, bi aditu ere badaude, bata
oinarrizko giza eskubideen
arlokoa eta bestea ingeniari-
informatikoaren arlokoa.

Aurreikusita
zegoen bezala,
Kontseiluaren lehendakaria
aldatu egin zen 2007an.
Lurralde historikoen
ordezkaria eta toki
erakundearen ordezkaria
ere aldatu egin dira.

Kontseilu
Aholku-emailea
hiru aldiz bildu da:
martxoan, ekainean
eta azaroan.




Irizpenak

- DBEBk jasotzen dituen kontsultei egiten zaizkien idatzizko erantzunak dira eta helburua da aholkularitza formala ematea.
- Datu pertsonalen babesaren inguruko gai jakin baten inguruan galderak egiten dituzten administrazioak eta pertsona pribatu, fisiko edo juridikoak dira irizpenen hartzaile zuzenak.
- Hona hemen 2007an emandako irizpen garrantzitsuenen gaiak:

- Informatzeko betebeharrak betetzea zerga arloko datuak biltzean.
- Etorkinentzako Lege eta Gizarte Arretarako fitxategi jakin batzuetan arau-hauste penalen edo administratiboen arloko datu pertsonalak jasotzeko aukera aztertzea.
- Datu pertsonalak lagatzea diru-laguntzak jasotzeko betekizunak betetzen diren ala ez egiaztatzeko.
- Hildako pertsonen datu pertsonalak lagatzea.
- Baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiltzea administrazio prozeduretan.
- Datu pertsonalak lagatzea ordezkaririk ez dituzten sindikalei.

Aholkularitza bilerak eta telefonoz, posta elektronikoz edo bertaratuta egindako kontsultei emandako erantzunak


- DBEBk hainbat bilera izan ditu Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait administrazioekin, kontrol jarduerarekin bateragarria den administrazio publikoenganako hurbilketa aktiboa gauzatuz. Bilera hauetan honako gaiei buruzko aholkularitza lana egin da: legezko betebeharrak formalki betetzeari buruzkoa, datuen babesari buruzko araudia betetzen dela bermatzeari buruzkoa eta administrazio bakoitzaren ezarpen eremuan egitasmo berriak gauzatzeko jarduerari buruzkoa besteak beste.



Babes espedienteak

- Babeserako eskubidea sortzen da herritarri atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez —AZETA eskubideak ere esaten zaie— baliatzeko aukera ukatzen zaionean.

- Fitxategiak atzitzeko eskubidea ukatzeagatik aurkeztutako erreklamazioak dira gehienak.



- Ikusten da herritarrek gutxi dakitela eskubide horiei buruz, eta ez dakitela DBEBri babesa eska diezaioketenik administrazioek ez badiete behar bezalako erantzuna ematen AZETA eskubideez baliatu nahi dutenean, administrazioek eskubide horiek errazteko obligazioa dutela kontuan izanda



Salaketak

- Pertsonak fisikoek edo juridikoek aurkeztutako erreklamazioak dira, datu pertsonalen babesaren arloko araudia urratuz egiten diren jarduerak direla eta.
- 2007an ebatzitako salaketak honako gertakarien gainekoak izan dira nagusiki:

- fitxategiak sortzearekin eta DBEBn inskribatzearekin zerikusia duten betebeharrak ez betetzea
- datu pertsonalak biltzean informazio eskubidearen irizpidea urratzea

- datu pertsonalak lagatzea edo erabiltzea datuen titularren adostasunik gabe edo legearen babesik gabe



Ikuskaritza
sektoriala
hezkuntza
arloan

- Euskal administrazio publikoetan datuen babesaren arloko araudiaren kontrako jarduerarik egon den egiaztatzeko, DBEBk irekitzen dituen espedienteak dira.
- Aitortutako arau-hausteeak legea urratzen duten hiru egoera mota atzeman dituzte. Hona hemen:
- behar bezalako segurtasun neurririk gabeko fitxategiak egotea,
- sekretu gorde beharra ez betetzea,
- datu pertsonalen fitxategiak Datuak Babesteko Erregistroan inskribatzeko eskaerarik ez egitea, inskripzioa nahitaezkoa izanik



- 2007ko otsailaren 19ko Erabaki baten bidez, DBEBren zuzendariak aldizkako nahiz ofiziozko *Ikuskapen sektorialak egiteko prozedura eskuliburua* onartu zuen. Ikuskapen sektorialen helburua da aztertzea nola ari diren betetzen DBLOn jasotako aurreikuspenak hainbat ezaugarri komun partekatzen dituen jardute arlo batean.
- 2007ko irailean **Hezkuntzako arlo publikoaren** ikuskapena hasi zen.
- Ikuskapen sektorialaren gaineko txostena 2008aren hasieran bukatu eta aurkeztuko da. Txostenean, hutsuneak jasotzeaz gain, hainbat gomendio ere emango dira, hezkuntzako arlo publikoa DBLOren eskakizunetara egokitu dadin.





Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroa

Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan egon diren mugimenduak

- 2007an zehar 1.768 mugimendu egon dira datu pertsonalen fitxategien inskripzioekin, aldaketekin edo ezabatzeekin.

- Gehienak fitxategi berrien inskripzioak izan dira (% 66); lehendik zeuden fitxategien aldaketak mugimendu guztien % 23 izan dira eta, azkenik, ezabatutako fitxategiak mugimenduen % 11 izan dira, hau da, azken horiek izan dira Erregistroan egin diren mugimenduen artean portzentaje txikiena izan


dutenak. Kontuan izan behar dugu fitxategi bat ezabatzea ez duela esan nahi bertako datu pertsonalak ez direla gehiago tratatuko, ohikoena izaten delako fitxategi bat ezabatzea fitxategia eraldatzen delako eta sortu den beste fitxategi batean txertatzen delako.



Inskribatutako datu pertsonalen fitxategiak

- Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan 4.427 fitxategi daude inskribatuta.

- 2007ko abenduan Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroak %28,2ko igoera izan zuen 2006ko abenduan inskribatuta zegoen fitxategi kopuruarekin alderatuta (973 fitxategi gehiago guztira).



Azterketa kualitatibo bat egitea datuen babesaren gainean herritarrek duten pertzepzio sozialaren gainean eta Bulegoari buruz dakitenaren gainean

- Euskal herritarrek haien datuen babesaren gainean duten pertzepzio soziala zein den jakiteko egin den lehendabiziko azterketa da. Horretarako, eztabaida-taldeen (*focus group*) metodologia erabili da: lau talde eratu dira, partaideak adin tarteen arabera sailkatuta, hau da, 18-21 urte bitarteko, 22-30 urte bitarteko eta 31-45 urte bitarteko hiru talde eta 45 urtetik gorakoen beste talde bat.



• Hona hemen emaitzarik aipagarrienak:

- Hasiera batean ez du ematen pertsonak gehiegi arduratzen direnik datu babesaren gaiaz eta pribatutasunak jasaten dituen mehatxuez; ez dute arazorik antzematen. Baina, ikusten dutenean hirugarren pertsonak edo entitateek nola kudeatzen dituzten haien datu pertsonalak, berehala azaleratzen da halako ahultasun sentimendua.
- Datu babesarekin zerikusia duten gaiak direla eta, esan behar da kezkak desberdinak direla pertsonen adinari erreparatzen bazaio. Nagusienek urrutiko salmentekin edo telemarketinarekin lotutako teknika oldarkorrekin lotzen dute arazoa. Gazteenak, ordea, kexu dira posta elektronikoak edo Internetek haien pribatutasuna inbaditzen dutelako (batez ere spam edo posta baztergarriaren bidez) eta telefono konpainiek egiten dituzten publizitate jarduerak gogaikarriak direlako, batez ere, sms edo telefono mugikorren bidez egiten dituztenak.
- Datu pertsonalen kudeaketa dela eta, pertsonak ez dakite zeintzuk eskubide dauzkaten eta zeintzuk diren administrazioen eta enpresen betebeharrak, hau da, ez dakite zer egin daitekeen eta zer ez.
- Konfiantza erabat desberdina da datuak administrazioak erabiltzen dituenen ala enpresa pribatuak erabiltzen dituenen. Herritarrek uste dute administrazioek behar bezala babesten dituztela erabiltzen dituzten datuak, aitzitik, ez dute konfiantza handirik erakusten eta mesfidantzaz agertzen dira enpresek datu pertsonalekin egiten dituzten erabilerak direla eta.
- Pertsonak ez dakite informazioa jasotzeko eskubidea dutenik inork datu pertsonalak eskatu aurretik. Ez dakite haiei buruzko zeintzuk datu pertsonal dauzkaten galde diezaieketenik administrazioei eta enpresei, eta ez dakite datu horiek zuzentzeko edo ezerezteko eska dezaketarik, datuak ez badira zuzenak edo beharrezkoak.
- Herritarrek ez dakite datu babesaren arloan kontrol agintaritarik edo agentziarik dagoenik eta uste dute datuen babesa kontsumoarekin lotutako kontu bat dela.
- Ezjakintasuna handia izan arren, egia da pertsonak haien eskubideei buruzko informazioa eskatzen dutela, eskubideak nola erabili eta eskubideak aldarrikatzeko nora jo behar duten jakin nahi dute.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren kanpaina bere eskumenpean dauden erakundeei aurkezteko bere burua

- 2007an zehar Datuak Babesteko Euskal Bulegoak bere burua aurkezteko eta euskal administrazio publikoekiko harremanetarako jarduerak egiten jarraitu zuen. DBEBk 2006ko azken hiruhilekoan ekin zion topaketa kanpaina honi.

- **Hona hemen bileren helburuak:**


- Toki erakundeetako arduradunei ikustaraztea zein garrantzitsua den bizitza pribatuarekin eta datu pertsonalen babesarekin errespetuz jokatzeko datu pertsonalak kudeatzeko sistemak sustatzea eta ezartzea.

- Datu pertsonalak babesteko lege esparrutik ondorioztatzen diren printzipio nagusien, eskubideen eta betebeharren jakitun egotea, eta DBEBren jardueren berri izatea.

- Hasierako azterketa bat egitea topaketan parte hartu duten administrazioetan datu pertsonalak nola kudeatzen eta babesten dituzten jakiteko.

- Administrazioetako arduradunek hitzez adieraztea eta elkarrekin partekatzea pertsonen buruzko informazioaren kudeaketarekin zerikusia duten arazoak eta zalantzak eta horien artean errazenei erantzutea eta aholku ematea.

- Tokiko hauteskundeetan egon diren aldundietan egon diren gobernu aldaketen ondoren, zenbait bilera egin dira denekin (azaroan eta abenduan).



“Ba al dago zure intimitatea baino gauza pribatuagorik?” liburuxka

- 10.000 informazio-liburuxka diseinatu eta editatu dira herritarrek duten oinarrizko informazio premiei erantzuteko. Liburuxkaren izenburua honakoa da: “Ba al dago zure intimitatea baino gauza pribatuagorik?”

- Paperezko liburuxka hauetan hainbat gauza azaltzen dira: datu pertsonalak zer diren, administrazioek eta enpresek nola erabili behar dituzten datu pertsonalak, zeintzuk eskubide dauzkaten pertsonak, nola erabili ditzaketen, datuak babesteko agentzien eginkizunak eta jarduerak eta zeintzuk legek babesten dituzten herritarrak, haien bizitza pribaturako eskubidea eta datu pertsonalen babesa bermatzeko.



“Babestu zure datu pertsonalak” egutegia

- 2008ko 5.000 egutegi banatu ziren euskal administrazio publikoen artean “Babestu zeure datu pertsonalak” lemapean. DBEBk lehendik erabilitako irudi grafiko bat eta DBEBrekin harremanetan jartzeko informazioa (helbidea, telefonoak eta web orria) agertzen dira egutegian.



Datuak Babesteko Euskal Bulegoa gizarteko komunikabideetan

- DBEB zenbat eta ezagunagoa egin, orduan eta informazio gehiago eskatzen digute gizarteko komunikabideek, eta gure lankidetzak eskatzen digute irratian, egunkarietan edo telebistan elkarriketak egiteko edo parte hartzeko.

- 2007an zehar DBEBren zuzendariak telebistako solasaldi batean hartu zuen parte, prentsa idatzirako sei elkarriketa egin zituen eta 12 irratirako. Prentsa idatzian DBEBrekin zerikusi zuzena zuten hogeiren bat berri agertzeaz gain, datuen babesarekin lotutako

zenbait jardueraren gaineko aipamenak ere agertu ziren. Aipamenean artean nabarmentzekoak dira *Datu Babesaren Europako Eguneko* jarduerai buruzkoak eta *Datuak Babesteko Autonomia Mailako Agentzien IV. Topaketari* buruzkoak.



Datu Babesaren Europako Eguna (2007ko urtarrilak 28)

- 2007ko urtarrilaren 28an ospatu zen estreinako Datu Babesaren Europako Eguna. Europako Kontseiluak, Europako Batzordeak eta Europako Batasuna osatzen duten herrialdeetako datu babesaren arloko agintaritzak guztiek sustatzen dute egun hau.

- Datuak Babesteko Euskal Bulegoak hainbat jarduera antolatu zituen ekimen horrekin bat eginez. Ekimen horien artean aipagarriena izan zen *Lanean ari gara zure datu pertsonalak babesteko* lemapean Bulegoak argitaratu zuen hiriguneetarako iragarki txartela. Egitasmo hau Vitoria-Gasteizko Udalaren lankidetzarekin

gauzatu zen, izan ere, Udalak 129 erakusketa gune jarri baitzituen Bulegoaren esku aste oso batez. Vitoria-Gasteizko Udalak ekimen honetaz gain, beste asko ere egin ditu gai honen inguruan, izan ere, Udalak pribatutasuna eta datuen babesaren gaiarekiko kontzientziazio handia agertu izan du beti.

Pribatutasuna eta datu pertsonalen babesa Oinarrizko Hezkuntzako Euskal Curriculumean: DBEBren ekarpenak

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Oinarrizko Hezkuntzako Euskal Curriculumari buruzko Dekretua onartu

zuen 2007an. Baina, Dekretua onartu aurretik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak hainbat ekarpen egin zituen, errespetua ikasi

beharra eta bizitza pribatuaren balio positiboa uztartzeko Oinarrizko Hezkuntzako Euskal Curriculumean.

- Ekarpene horiei esker, curriculumeko zenbait arlotan helburu, eduki eta ebaluazio-adierazle batzuk jaso dira, pribatutasunarekiko errespetua barneratzea, babestea eta zaintzea ahalbideratzen duten hainbat ikaste-esperientzia planifikatzeko eta ebaluatzeko xedearekin. Hona arloak: *Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren arloa* (Lehen Hezkuntzan, 11 urte)

eta *Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren arloa, Etika eta gizabide hezkuntzaren arloa eta Teknologien eta informatikaren arloa* (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 12 eta 15 urte bitartean ematen dira ikasgai horiek).

- Adibidez, *Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren arloaren* helburuetako bat da “Giza egoera aintzat hartzea bai dimentsio

sozialean bai dimentsio indibidualean, norberaren eta besteen identitatea eta horien dimentsio pribatua onartuz, hartara, desberdintasun indibidualak eta pribatutasunaren espazioa errespetatzea lortzeko eta autoestimua garatzeko”. Arlo honen edukietako bat da “Pertsonen arteko harremanak komunikazio elektronikoaren gune berrietan. Bizitza pribatua eta datu pertsonalen babesa”.

Langile publikoen sentsibilizazio eta prestakuntzarako bideo baten edizioa

- DBEBk akordio bat lortu zuen Erresuma Batuko Information Commissioner's Office (ICO) erakundearekin prestakuntzarako bideo bat egokitzeko eta editatzeko erakunde horren lizentziapean. Bideo hau datuen babesaren printzipioei buruzko sarrera dramatizatu bat da, eta bideoaren xedea da langileentzako sentsibilizazio eta prestakuntza programa baten parte izatea eta

Administrazioentzako lagungarri izatea legezko eskakizunak betetzeko eta jardunbide egokiak eskuratzeko. Horretaz aparte, zabalkunderako material baliagarria da bai arlo pribatuko erakundeentzako bai herritarrentzako orokorrean. Hogeita bi minutuko iraupena du, euskaraz eta gaztelaniaz dago eta gaiari buruzko galde-sorta bat dauka galderekin eta erantzunekin.



Datu pertsonalen babeserako eta kudeaketarako gida praktikoa bat egitea funtzionario publikoentzat

- DBEBk erabaki du *Datu pertsonalen babeserako eta kudeaketarako gida praktikoa bat egitea funtzionario publikoentzat*, datu pertsonalen erabilerarekin lotutako lan prozedurak aldatzeko eta aldatzen laguntzeko. Horrelako lan baten

premia dagoela argi geratu da datu babesaren arloko argitalpen gehienak arlo horretan eginkizun aktiboak dituztenei zuzenduta daudelako, eta ez dagoelako oinarritzko gidarik langile publikoen autoprestakuntzarako edo kontsultetarako

erabiltzeko balio duenik, edo pertsonen informazioaren kudeaketarako prozedura berriak ezartzeaz arduratzen diren irakasleek eta bideratzaileek erabiltzeko modukorik.

- Datu pertsonalen babeserako eta kudeaketarako gida praktikoa idazketari 2006ko urrian ekin zioten eta 2008an segituko dute.

duten laneko ohiko egoerak eta, bestetik, horretarako erabiltzen diren komunikaziorako bitartekoak (telefonoa, paperezko dokumentuak, faxa, Internet eta abar). Horiez gain, datu pertsonalen kudeaketaren azpian dauden hiru harreman motak ere jasoko ditu: batetik, langile publikoek herritarrek dauzkatenak; bigarrenik,

administrazio publikoek beste administrazio publikoekin dauzkatenak; eta hirugarrenik, langile publikoen eta haiek lan egiten duten administrazio publikoen artean daudenak.

- Gidaren egitura honakoak bereizten dira: batetik, lanean kudeatzen den pertsonen informazioaren eskaerarekin, tratamendurekin, komunikazioarekin eta kalitatearekin zerikusia

- Gidaren edukia osatzeko, lanerako tresna lagungarriez gain, neurri teknikoak eta antolaketako neurrien ereduak edo adibideak egin behar dira.



Jardunbide Egokien Eskuliburua biomedikuntzaren arloan egiten den datu pertsonalen tratamendurako

- DBEBk akordio bat lortu du Giza Genomaren Katedrarekin, Jardunbide Egokien Eskuliburu bat egiteko biomedikuntzaren arloan egiten den osasuneko datu pertsonalen tratamendurako.

- Eskuliburuaren xedea da biomedikuntzako profesionalei tresna bat eskaintzea pazienteen eta ikerketaren subjektuen osasunari buruzko datu pertsonalak tratatzen laguntzeko.

- Gida hau lagungarria izango da Euskal Autonomia Erkidegoan pazienteen eta ikerketaren subjektuen autodeterminazio informatiborako oinarritzko eskubidea errespetatzen dela bermatzeko.

Euskadiko toki erakundeeta- rako Jardunbi- de Egokien Eskuliburuaren idazketaren azken fasea

- Jardunbide Egokien Eskuliburua Euskadiko **toki erakundeentzako Ereduzko Kode bat** da eta bere xedea da datu pertsonalen babesaren arloko araudiak ezartzen duena EAEko toki erakundeek egiten dituzten tratamenduen

- Eskuliburua idatzi dutenean artean EUDELeko eta DBEBko ordezkariak eta Vitoria-Gasteizko, Basauriko, Getxoko, Ermuko, Eibarko eta Beasaingo udaletako ordezkariak egon dira. Hamalau hilabetetan hamabi bilera baino gehiago egin dira.

berezitasunetara egokitzea, datu pertsonalen babesaren arloan kontzientziazkoa zabaltzen joan dadin toki erakundeetan eta bertan lan egiten duten pertsonen artean. Eskuliburuaren edukiaren alderik aipagarrienak

- 2007aren bukaeran bakarrik falta zen EUDELeko organoek eskuliburua behin betiko onartzea eta DBEBra bidaltzea, Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan inskribatu dezaten.

dira, alde batetik, **eredu praktikoak**, toki erakunde bakoitzak bere egoerara egokitu ditzakeelako, eta beste alde batetik, **kasu konkretuak**. Azken horiek datu babesarekin zerikusia duten ohiko egoerei erantzuten diete.



EHUren Datu Babeserako Erregela- menduen idazketaren azken fasea

- Idazketa fasea bukatuta dago. Hasierako asmoa jardunbide egokien eskuliburu bat egitea zen, baina, azkenean, erregelamenduaren oinarri juridikoa hartu du. Erregelamenduari atxikita daude lanerako lagungarriak diren hainbat

- 2007ko ekitaldia bukatzean Erregelamendua EHUko organo eskumendunei bidaltzeko zain geratu zen, onar dezaten. Gainera fakultate

tresna eta dokumentu osagarri eta praktiko, zenbait eginkizun nola egin erakusten dutenak: azterketen emaitzak nola argitaratu, ikasleen fitxak ordezkatzeko tresnak nola egin eta abar. Erregelamenduak hiru zati dauzka: xedapen zatia eta

edo unibertsitate zentro bat hasita dago proiektua ezartzen. Beraz, pertsonen buruzko informazioa kudeatzeko prozedurak aldatzen hasteko

bi eranskin. Eranskinetan pribatutasunarekin zerikusia duten ereduak, agiriak eta erabakiak daude, eta horiek egokitu beharra baldin badago, aldagetak egiteko eta onartzeko prozedurak errazak dira.

esperientzia honetatik abiatuz, diseinatutako ezarpen plana egokitu eta hobetu ahal izango da, bai eta unibertsitate osora hedatu ere.

DBEBren parte hartzea Nazioarteko Foroetan

- Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, kide kreditatua izanik, nazioarteko foro eta esperientzia hauetan hartu du parte:

- Datu Babesaren Europako Agintaritzen Konferentzia —Udaberriko Konferentzia—. Konferentzia Zipren izan zen 2007ko maiatzaren 10ean eta 11n.
- “29th International Conference of Data Protection and Privacy Commissioners” Nazioarteko Konferentzia. Montrealen egin zen 2007ko irailaren 25a eta 28a bitartean, Kanadako Comissaire à la protection de la vie privée du Canada kontrol

agintaritzak antolatuta “Pribatutasunaren etorkizuna – Terra Incognita” lemapean.

- Telekomunikazioetako datu babesari buruzko Nazioarteko Lantaldea (IWGDPT – Berlingo Taldea). Bilerak Guernsey-n (apirilaren 12an eta 13an) eta Berlinen izan ziren (irailaren 4an eta 5ean).
- Un Twinning Project edo Datuak Babesteko Bulgariako Agentziarekin egindako hartu-eman proiektua.



Datuak Babesteko Espainiako, Kataluniako, Madrileko eta Euskadiho agentzien arteko lankidetzak

- Espainiako, Kataluniako, Madrileko eta Euskadiko agentzien arteko hartu-emanetarako eta lankidetzarako esparruaren baitan hainbat lantalde eratu dira honako jardute eremu hauen inguruan: azterketa juridikoa eta aragintzakoa, ikuskaritza, erregistroa, nazioartea, eta antolaketa, eraberritzea, komunikazioa eta prestakuntza.

- Lantaldeek hainbat bilera egin dituzte, batzuk presentzialak eta besteak bideokonferentziaz. Bilera horietan hainbat jardute-irizpide komun zehaztu dituzte eta zenbait jarduera antolatu dituzte elkarrekin.
- Datuak babesteko agentzia guztiek batera hartu zuten parte TECNIMAP-Administrazio Publikoak Berriztatzeke Informazioaren Teknologiaei buruzko Jardunaldietan. Jardunaldi horietan datu pertsonalak

babesteari eta agentzien jarduerari buruzko informazioa eta material informatiboa banatu ziren bertaratuakoen artean. Horretarako, agentziek triptiko bat diseinatu zuten eta “Segurtasuna eta konfiantza. Datu pertsonalen babesa”, izenburua zuen workshop edo informazio-lantegi bat antolatu zuten. Lantegia azaroaren 29an egin zen eta lau agentzietako pertsonek egin zuten aurkezpena.

Datuak Babesteko Agentzia Autonomikoen IV. Topaketa antolatzea

- DBEBk Datuak Babesteko Agentzia Autonomikoen IV. Topaketa antolatu zuen honako leloarekin: *Datuen babes eta informazio atzipena. Aldibereko eskubideen arteko beharrezko bat egitea*. Vitoria-Gasteizko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakariordetzak ere parte hartu zuten antolaketan.

- IV. Topaketako saioak Vitoria-Gasteizen egin ziren, urriaren 23an eta 24an eta 200 pertsona baino gehiagok hartu zuten parte, gehienak administrazio publikoetatik etorritakoak, nahiz eta arlo pribatutik ere etorri ziren. Parte hartzaileek saioen balorazio oso ona egin zuten eta esan behar da asebetetze mailaren batez besteko puntuazioa 8,2koa izan zela zero eta hamarren artean.



Datu pertsonalen babesaren arloko hitzaldietan, mintegietan eta informazio eta prestakuntzari buruzko bestelako jardueretan parte hartzea

- Bulegoaren zuzendariak eta bertako zenbait kidek datu babesarekin eta/edo Bulegoaren jarduerarekin zerikusia duten hainbat ponentzia aurkeztu dituzte edo zenbait hitzaldi prestatu dituzte 15etik gora izan diren jardunaldi eta topaketetarako.

Euskal Estatistika Plana koordinatzen duen lantaldearekin lankidetzan aritzea

- Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Euskal Estatistika Plana Koordinatzeko Lantaldean dago. Hona hemen lantaldearen eginkizun nagusiak:
 - Planaren arau teknikoak diseinatzea
 - Planaren Legearen aurreproiektua egitea eta Estatistika Planen ebaluazioa
 - planak garatzeko programak egitea

Hitzarmen berriak izenpetzea

- Hitzarmen berriak izenpetu dira honako hauekin:
- Osasunaren Informatikako Espainiako Elkarte (SEIS)
- Askatasunen eta Informatikaren Batzordea (CLI)
- Kalitaterako Euskal Iraskundea (EUSKALIT)
- Era berean hitzarmen bat adostu zen HAURRESKOLAK Partzuergoarekin, 2008an izenpetu beharrekoa



DBEBren antolaketa eta kudeaketa

- **Lanpostu** gehienak betetzea
- **Prozesuen araberako kudeaketa** sistema bat ezartzea
- Hobekuntza taldeak eratzea
- Kudeaketa sistemak finkatzea. Aplikazioak erostea, hobetzea eta garatzea

Emazkidazu zure datuak

Datu hitza latineko datum hitzetik dator eta “ematen dena” esan nahi du. Horregatik, eta hizkuntzak zenbaitetan haien jatorriari hertsiki loturik daudenez, adierazpide hanpatu samarrak erabili beharra egokitzen zaigu, datuak eman egiten direla esaten dugunean bezala —“ematen dena” eman egiten da—. Azterketa etimologiko honek gogorarazten digu informazio pertsonala jaso eta ematea eskuzabaltasunaren eremuan sartzen dela edo, gutxienez, doan jaso eta ematen dela. Norbanako moduan berezia egiten nauena, nire barne-barneko izaera, hau da, niri buruzko zera guztia nahi dudanari eta nahi dudanean esateko da. Isilpean gorde dezaket, desitxuratu egin dezaket edo adierazi egin dezaket, baina doan. Ez dut informazio hori salerosketarako erabiltzen. Elkarrizketak —edo harremanak— eramango nau jarrera bat edo bestea hartzera, esan ala ez esan erabakitza. Azken finean, neure buruari buruz dakidana nire ondasunik preziatuena da, eta nahi dudan bezala administratu dezaket neure buruari buruzko informazioa, nire eskubidea delako, eta izugarritzko eragina duelako nire egungo izatean, bai eta gerokoan ere. Horregatik, mezua zabaldu aurretik, —nik neuk— ingurua ezagutu behar dut. Gizakien arteko mendeetako hartu emanez erakusten dute sarritan datuak konfiantzazko bilbe baten bitartez eskualdatzen direla, eta pribilegiadun egoera batzuetan, bilbean afektuaren urre koloreko hariak ere gurutzatzen dira. Beraz, nik neure buruaz esaten dut gogoak ematen didalako. Eta ez hori bakarrik, maitasunez diot, neure buruaz diodana maite zaitudalako diodala.

(...) Nik betidanik dakit, ume-umetatik ikasita, norberari buruzko informazio desitxuratua ematea eta zabaltzea jukutria galanta dela, pertsonaren adorea eta adimena nahiz garapen profesionala odolustu dezakeen sastada. Datu oker batek edo ankerkeriaz emandako datu batek edonor akabatu dezake, eta akabatzen ez badu, betiko galbidera eraman dezake. Makina bat lagunek —beharbada milioika lagunek—, haiei buruz esan behar ez direnak esan direlako edo esan beharrekoak isilik gorde direlako edo aldrebestu direlako, nortasuna zauriturik, zentzua galdurik edo ahalmena ahiturik, bizitzaren norabidea galtzen dute, porrot egiten dute edo kalte fisiko nahiz psikologikoak jasaten dituzte. (...) Egia esan, ez dago delinkuentzia informatiboa baino krimen handiagorik. Izan ere, pribatutasuna bortxatuz hasten da eta hilketa batekin bukatu: nortasuna akabatuz.

